



Galdera-marka (?) eta harridura-marka (!)

Galdera- eta harridura-marken kokapena

Gehienetan, **perpaus amaieran** jartzen dira, azken hitzari itsatsita (zuriunerik utzi gabe), eta **ez dute punturik behar**, markak berak esaldiaren amaiera adierazten baitu.

- ✓ Zer nahi duzu edateko?
- ✓ Hara zer gertatu den!

Beste batzuetan, galdera- edo harridura-perpaua **perpaus nagusi baten barruan** txertatzen bada, markaren ondoren **koma, puntu eta koma eta bi puntuak erabil daitezke (zuriunerik gabe)**.

- ✓ Kafea nahi duzu?, galdetu zidan lankideak.
- ✓ Benetan ahaztu egin zaizula?; etxetik atera aurretik gogoratu dizut eta!

Letra larria edo xehea galdera- eta harridura-markaren ondoren

Galdera- edo harridura-markaren **ondoren beste puntuazio-markarik ez badago, esaldia amaitu dela** ulertzen da, eta **hurrengo esaldia letra larriz** hasiko da.

- ✓ Eskerrak patata-tortilla egin duzun! Bestela, jan gabe geratuko ginen.
- ✓ Ederto! Ni ere ados nago.
- ✓ Nola? Ezer esan gabe atera zela etxetik?

Aldiz, galdera- edo harridura-markak esaldi bukaera ez direnean, **ondoren puntuazio-markaren** bat izaten dute, eta haren ondoko **lehen hitza letra xehez** idatziko da.

- ✓ Aurrera, Jon, aurrera!, esaten diot neure buruari lantegiko atetik sartzean.
- ✓ Kaferik nahi al duzu?, galdetzen diot egunero lankideari goizeko hamarrak inguruan.
- ✓ Ez duzula entzun?; lapikoa lurrera erori zaio eta!: zertan ariko zinen zu?

Galdera-perpaus edo harridura-perpaus sorta bat dagoenean, bi modutara uler daitezke. Batzuetan, esaldi horiek guztiz **independentek** dira; hau da, bakoitza enuntziatu bat da. Horrelakoetan, esaldi guztiak **letra larriz** hasten dira.

- ✓ Noiz heldu zara? Ez zinen ba lehen orduan etortzekoa? Zergatik ez didazu ezer esan?
- ✓ Lasai egon! Ez kezkatu! Konponduko da!

Beste batzuetan, berriz, galderak edo harridura-markadun esaldiak multzo bereko atal gisa hartzen dira. Kasu horretan, lehen esaldia larriz hasten da, baina gainerakoak **letra xehez** idazten dira, eta **koma** eta **puntu eta koma** erabiliko dugu bereizteko.

- ✓ Sartu eta batera, hiru galdera egin zizkion: Nor zara?, zenbat urte dituzu?, non bizi zara?
- ✓ Ai ama!; zer nolako zarata dagoen hemen!; horrela ezin da lanik egin!
- ✓ Sasoiko barazkiak dastatzeko plater berriak!, zein duzu gustukoena?, etorri eta probatu!

Interjekzio errepikatuetan ere antzera gertatzen da: marka amaieran jartzen da, eta aurrekoak komaz bereizten dira.

- ✓ Et, et, et! Ez hasi berriz!
- ✓ Ai, ai, ai! Zer egin duzu orain?

Galdera edo harridura-marka bikoiztu edo hirukoiztu daiteke.

Erregistro informalean —lagunarteko testuetan, sare sozialetan edo publizitatean— ohikoa da ? edo ! marka **bikoiztea** edo **hirukoiztea** enfasia adierazteko. Indarra eta adierazkortasuna ematen dute, baina **ez dira egokiak testu neutro edo zainduetarako**, eta **ez da komeni gehiegi erabiltzea**, eragina galtzen dutelako.

- ✓ Kotxe bat oparitu dizutela???
- ✓ Ene bada, hori bai lasaitua hartu duzuna!!!

Galdera eta harridura, batera

Badira esaldi batzuk galdera eta harridura aldi berean adierazten dituztenak. Horrelakoetan, **bi markak batera** erabil daitezke (?! edo !?).

- ✓ Ez zenekiela gaur azterketa dagoela!?
- ✓ Noiz etorriko da, bada, eguraldi ona?!

Parentesi barruko marken erabilera

Galdera eta harridura-markak esaldiaren ondoan duten elementuari **esanahi berezi bat** emateko erabil daitezke. Horrelakoetan, marka **parentesi artean** jartzen da: galdera-markak **zalantza, ziurgabetasuna edo sinesgaiztasuna** adierazten du; eta harridura-markak, berriz, **harridura, ironia edo kritika sotila**.

- ✓ Hirurehun pertsona inguru (?) gonbidatu zituen ezkontzara.
- ✓ Ezetz, gaur ez duela arratsalde osoa sofán eserita emango (!).